

# Hitzatzea

## Hirota Sinozaki, lanbidez *kamishibaya*

JOSU JIMENEZ MAIA\*



**H**irota Sinozaki kamishibai kontalaria, *kamishibaya*, Tokio handiko parke batera heldu da txirringaz. Txirringaren atzeko aldean egurrezko kutxa handi bat darama eta, kutxaren gainean, *butaia*, antzetzeko egurrezko euskarria. Txirringa finkatu eta gero, kutxatik atera ditu *yoshigiak*, egurrezko bi pieza; *yoshigiak* jotzen hasi da eta zalapartarekin batera parkeko txoriak uxatu ditu, baina, era berean, parkeko ume guztiak erakarri ditu. Zalaparta adituta, umeek ederki dakite *kamishibaya*, kamishibai kontalaria, berriz ere heldu dela parkera: «Ea gaur ze ipuin kontatzen digun».

Agian, *Momotaro*, muxika batetik sortu zen umearen elezaharra; agian, *Hiru talismanen ipuina*; agian, *Monjeak sorgina jan zueneko elezaharra*. Edo ez, zeren Japoniako herri ipuinak ez ezik, kamishibai teknikaren bidez, mundu osoko ipuinak ere konta baitaitezke. Agian, gaur Hirota Sinozaki-k Sumatrako folkloretik hartutako *Aita* ipuin hunkigarria kontatuko digu; agian, Indiako

herri ipuin batean oinarritutako *Kanhu bizkorra*; agian, *Ahatea errege* herri ipuin frantsesa... betiere, kamishibai teknikarekin: antzetzeko egurrezko euskarrian, kamishibaiaren orri zurrinak banan-banan pasatzen kontatzen ditu ipuinak.

Ipuinak kontatzeko teknika bat da *kamishibai*, Japonian sortua. Etimologikoki *kami* hitzak papera esan nahi du; *kamishibai* hitzak, beraz, paperezko antzerkigintza.

Hortaz, narratzaileak paper zurruneko orrien laguntzarekin egiten du lan. Bi motatako kamishibai ipuinak daude: alde batetik, umeen parte-hartze zuzena eskatzen dutenak eta, bestetik, umeen parte-hartzea eskatzen ez dutenak.

Oro har, herri ipuinak edo elezaharrak biltzen dituzten kamishibaiek normalean ez dute umeen partaidetza eskatzen: hasiera, korapiloa eta bukaera dituzte eta, *butaiaren* atexkak zabaltzen direnetik, ipuinaren mundua parke osora zabaltzen da eta ume guztiak harrapatzen ditu.

Bestalde, badira kamishibai asko umeen parte-

hartzea eskatzen dutenak: umeek onomatopeia batzuk esan behar dituzte ipuin jakin batzuetan, istorioaren osagarri, *Daimio tripontzia* kamishibaian bezala; *Kurrin-kurrin* ipuinean, umeek hitz berezi batzuk esan ezean, ipuina ez doa aurrera.

Hirotake Sinozakik bi mota hauetako kamishibai tartekatzen ditu parkeko saioetan. Hasi aitzin, ongi aukeratu ditu ipuinak; mota eta luzera ezberdinekoak. Ederki probatu eta frogatu du orri guztiak hurrenkera zuzenean daudela, gerta ez dakion –jainkoek ez dezatela horrelakorik nahi– aspaldiko hartan bezala, non istorioa kontatzen hasita, orriak gaizki jarrita zituela ohartu zen... Hura zen lotsa! Zorionez, «*Rokujuu no tenarai*», «inoiz ez da berandu ikasteko», eta Hirotake-k jarraitzen du ikasten, teknika hobetzen, kamishibaiekin urteak daramatzen arren.

Ipuinak alde zuzenetik ederki ezagutzen ditu eta orri guztiak hurrenez hurren dauzka: umeek ikusten duten lehenbiziko orriari dagokion testua azken orrialdeko atzeko aldean dago; orri hori pasatzean, umeek ikusiko duten bigarren orriari dagokion testua lehen orrialdearen atzeko aldean dago... eta horrela orri guztiak. Lehenengo orria ateratzean, umeek arreta osoa jartzen dute bigarren orriaren marrazkian, eta Hirotakek atera eta eskuan duen orria sartzen du butaiaren ertzekeko zirrikitutik. Hantxe dauka umeek ikusten duten marrazkiari dagokion testua, jarraibide guztiekin: ozenki irakurri behar duen, poliki-poliki irakurri behar duen... baita orria pasatzeko jarraibideak ere.

Umeak aurrez aurre ditu eta, ipuinak aurrera egin ahala, euren begietan n̄ir-n̄ir berezia sumatzen du. Hirotakek lortu du *kyokan*, xarma, giro berezia, ipuinaren mundua hedatu da eta umeak konkistatu ditu.



Baina ez da dirudien bezain erraza. Hirotake Sinozakik xehetasun guztiak zaintzen ditu. Hartara, beltzez jantzita joan ohi da; ez du umeen atentzioa galaraz dezakeen ezer nahi. Parkean ez du txirringa edozein lekutan jarri: antzetzeko tokia ere tentuz aukeratu du: parkeko gereziando eder baten babesean kokatu du *butaia*. Kontalaria bera *butaiaren* aldamenen dago; ez da ezkututzen *butaiaren* atzean, orri zurruntako atzeko aldeetan ipuinaren testu idatzia irakurtzeko moduan jartzen den arren. *Butaiaren* hiru atexkak ordena jakin baten arabera zabaltzen ditu, ipuinaren

munduaren atariko erritual baten gisara: lehenbizi, urrunen daukan atexka; gero, erdiko; azkenik, gertuen duen atexka zabaltzen du. Oroimena katramilatsua da eta ipuina ezaguna izan arren –nork ez du ezagutzen «Mamekkotaro», gure «Erpurutxo» ipuinaren ordain japoniarra–, testua irakurtzeak eta testuaren osagarri diren jarraibideak hantxe izateak ziurtasuna ematen diote Hirotake-ri. Ez du aparteko keinurik egiten, ez du *antzetzten*; umeen begiak finkaturik daude *butaiaren* barnean pasatzen diren marrazkietan; kamishibai teknikaren bidez istorioak berak bermatzen du umeen arreta, hasieratik bukaerara arte; horregatik, ez dago antzerkia egiteko beharrik.

Izan ere, orriak, batzuetan, poliki-poliki pasatzen ditu; beste batzuetan, azkar; batzuetan, orriaren erdia uzten du ikusgai... beste batzuetan, herena baino ez. Mugimendu horiek guztiak bat datoz ipuinaren garapenarekin, marrazkia eta testua txirikordatuta doaz. Hirotakek ez ditu orri-pasatzeak gogara egiten, atzeko aldeko testuak agintzen dion unean baizik.

*Mamekkotaro* oso ipuin gustagarria da; 16 orrik osatzen dute. Lehenago beste bi kamishi-

bai oso-osorik kontatu ditu –12 eta 8 orrikoak, hurrenez hurren– hasieratik bukaera arte. *Mamekkotaro* ipuinaren hasiera eta korapiloa garatu ditu: orain 2. orrian dago... Zer gertatuko zaio gure heroi txikiari, gure *Mamekkotaro* txiki eta bizkorra-ri? Lapur gaiztoek lortuko dute euren helburu maltzurra ala *Mamekkotaro*-k lortuko du ongi eta onik itzultzea etxera? Etxea –zer esanik ez–, «urruneko Japoniako urruneko mendi urrun batean zegoen, etxe xume bat zen eta bertan bizi ziren aitona-amona zaharrak», pobre-pobreak zirenak –nola ez!–. Orduan, zer gertatuko da?

Klimaxera heltzean, Hirotaka Sinozakik butaiaren atexkak itxi ditu: lehenbizi, gertuen daukan atexka; gero, erdikoak; azkenik, urrunen daukana. Ipuinaren mundua itxi da eta mundu errealerantz itzuli dira ume guztiak. Umeen erreguei entzungor, Hirotaka Sinozakik bertan behera utzi du kontaketa, soraio. Ipuina bukatzeko eta bukatzeko eskatzen dioten umeei hauxe esan die: «*Iwanu ga hana*»: «isiltasuna (gerezi) lorea da».

Orduan, *butaiaren* azpiko egurrezko kutxa handitik gozokiak atera ditu: Hirotaka Sinozaki gozoki-saltzailea da. Gainera, ez ditu merke saltzen, baina ipuina ikusten eta aditzen izan diren ume gehien-gehienek erosten dituzte: mendebaldean bitxiak egiten zaizkigun zapoak dituzten gozokiak dira: kuia, arabisagar, errefau gozokiak... kamishibai-ipuina bezain bitxiak Hirotaka Sinozaki, japoniar gehien antzera, gizon praktikoa da oso, eta oraingoan negozioa ongi atera zaio. Arestian esandako *kotowaza* edo esaera zahar horren haritik, beste etorri zaio gogora: «*Hana yori dango*», hobe arrezeko bolatxoak gerezi-loreak baino, alegia: loreei begira egotea oso polita izanik ere, batez ere gereziondoak –*hanami*– loretan daudelarik,



askozaz hobe da zerbait on hartu eta sabela betetzea.

Tamalez, horrelakoetan, beti izaten da umeren bat gozokiak erosteko dirurik ez daukanik: adibidez, hor atzeko aldean ezkutatzen eta zarpail antzean jantzita dabilen ume hori, ipuina entzuteko unean besteengandik aparte gelditu ohi dena, baina kamishibaiaren erakargarritasunari ihes egin ezinik astero-astero agertzen zaiona. Ume horrek ez du gozokirik erosteko *yen* bat ere eta antzematen zaio.

Euria egin ezean, Hirotaka Sinozaki hurrengo astean etorriko da berriz ere Tokioko parte honetara txirringaz, astero bezala. Txirringa finkatuko du, egurrezko kutxa handitik *yoshigi*-ak aterako ditu eta *Mamekkotaro* ipuinaren bukaera kontatuko die jakin minez izan diren umeei.

Hirotaka Sinozaki hagitik kontent dago, gozoki anitz saldu du eta; halere, baditu kutxa handian beste horrenbeste gozoki, beste parke batera joan behar baitu. Orduan ohartu da zarpail jantzitako umea inguruan gelditu dela. Hirotaka Sinozaki hurbilduko zaio eta hauxe erranen dio: «Hurrengo astean ni hona etortzean, *yoshigi*-ak jotzea parte osoan zehar zure esku; nire laguntzailea izanen zara eta, ordainetan, kamishibaiak aditzeaz landara, gozokiak emanen dizkizut opari»

Zarpail jantzitako umearen begiei ñirñir berezia darie.

EIBZn liburuz eta bestelako materialez osatutako fondoak dugu: kamishibaiak, liburuak, aldizkariak, CD-ROMak, DVDak, bideoak eta abar, Nafarroan, arauzko irakaskuntzan aritzen diren irakasleek maileguan hartzeko prest.

Orobat, EIBZn irakurketa gidak prestatzen ditugu, agitaratzen diren liburuen artean kalitate

literarioa kontuan hartuta aukeratu eta eskaintza erakargarria egiteko. Irakasleentzat ez ezik, gurasoentzat ere interesgarriak dira gure webgunean agertzen diren liburu gomendioak.

Bertan, liburutegia atalean, Haur eta Gazte Literaturak leku garrantzitsua du: irakurketa gidak, Liburu Ibiltariak, irakasleentzako bibliografia, katalogoa eta abar.

EIBZren liburutegiko dokumentuak sailkapen hamartar unibertsalaren arabera antolatuta daude. Abies 2.0 aplikazioak kudeatzen du katalogoa eta, sarean kontsultatu daiteke titulua, egilea edo argitaletxearen arabera. Adibidez, tituluaren Kamishibai bilatuz gero, une honetan 107 ale agertzen dira. (2009ko apirilean egindako bilaketa)

\* Iruñean sortu zen, 1967an. Ingeles irakaslea ofizios eta idazlea afizios. Egun, Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan (EIBZn) aritzen da lanean non, besteak beste, ikastaroak ematen ditu: *Ipuin tailerra* eta *Herri ipuinak*, *Testuak sortzen eta zuzentzen*, Literatur txokoa eta *Kamishibai-Japoniako teknika narratiboa*.

Nafarroako zenbait komunikabiderekin kolaboratzen du. Bestalde, narratiban dozena bat lan ditu sarituak eta argitaratuak. Artikuluak ere, hirurogei baino gehiago argitaratu ditu. Blog baten sortzailea da: *Ezka* <http://itxaurdi.blogspot.com>

### Hiotaka Sinozaki, de profesión kamishibaya

*Hiotaka Sinozaki es un kamishibaya, un cuenta-cuentos japonés que utiliza la técnica del kamishibai. Etimológicamente, la palabra japonesa kami significa «papel» y kamishibai sería «teatro de papel».*

*Hiotaka, nuestro narrador, trabaja con láminas rígidas de papel que introduce en el teatrillo de madera o butai. El cuento avanza sacando y metiendo las láminas mientras Hiotaka va desarrollando la historia*

*El texto cuenta un día de trabajo de Hiotaka, desde que se dirige a un parque del gran Tokio con su bicicleta cargada de Kamishibai... y de caramelos. Hiotaka vive de eso, de vender caramelos a los niños que se acercan a ver los cuentos de kamishibai. Cuentos clásicos como «Momotaro», el niño que salió de un melocotón -melocotón, momo; niño, taro-. Gracias a la técnica del kamishibai la atención de los niños y niñas está garantizada y así Hiotaka se asegura la clientela... Aunque, ¿qué hacer con ese niño que siempre acude y nunca tiene ni un miserable yen para comprarle caramelos?*

*El acrónimo EIBZ corresponde al Centro de Recurso para la Enseñanza de Euskera, dependiente del Departamento de Educación del Gobierno de Navarra, donde imparten cursos de formación en kamishibai para el profesorado de euskera. Así mismo, disponen de un sistema de préstamo de kamishibais y butais para los profesores y las profesoras de Navarra.*

### Hiotaka Sinozaki, a kamishibaya by profession

*Hiotaka Sinozaki is a kamishibaya, a Japanese storyteller who uses the kamishibai technique. Etymologically, the Japanese word kami means «paper» and kamishibai would be «paper theatre».*

*Hiotaka, our narrator, works with stiff sheets of paper which he inserts into the little wooden theatre or butai. The story advances as the sheets are removed and inserted, while Hiotaka gradually builds up the story.*

*The text describes one of Hiotaka's working days, from the moment he makes his way to a park in greater Tokyo with his bicycle loaded with a Kamishibai... and sweets. Hiotaka makes his living from this, from selling sweets to the children who come up to see his kamishibai stories. Classic stories like «Momotaro», the child who came out of a peach –peach, momo; child, taro-. The kamishibai technique guarantees the attention of the children and that way Hiotaka can be sure of customers... But what is he to do with that child who always turns up and never has even one measly yen to buy sweets from him?*



















*The Basque acronym EIBZ stands for Resource Centre for the Teaching of Basque, dependent on the Ministry of Education of the Government of Navarra, where training courses in kamishibai are given to teachers of Basque. They also have a system for lending kamishibais and butais to teachers in Navarra.*



# Behinola

Galtzagorri Elkarte

Haur eta Gazte Literatura Aldizkaria



## **Behinola aldizkariaren**

argitalpena 2009ko abenduan egin zen Iruñeko  
Ona Industria Gráfica inprimategian.

